

IRC bat eraikitzeke Enpresa instalatzailearekin kontratua

Bildu direnak

Batetik, _____,
aurrerantzean, Enpresa Instalatzailea, kontratu honentzat helbidea
_____ eta IFZ _____
dituena eta bere izenean eta haren ordezkari gisa, _____

Eta, bestetik, _____
Jn., Jabekideen Erkidegoaren presidentea¹ (markatu dagokiona) _____
-n dagoen etxebizitzarena, aurrerantzean Etxebizitzaren Ordezkaria.

Alde biek aitortzen diote elkarri kontratu hau izenpetzeko lege-gaitasun nahikoa eta, horretarako,

Honakoa azaltzen dute

I. Finkaren Ordezkariak instalazio hartzaile komuna jarri nahi duela eraikin osorako, eta baimena eman diola Enpresa Instalatzaileari bere kostura eraikitzeke, jabegoa mantenduz, eta Gas Natural Redes GLP, S.A.-ri lagatzeko baimena emanaz (aurrerantzean, Hornitzailea).

II.- Enpresa Instalatzaileari instalazio hartzaile komuna eraikitzeke lanak egitea interesatzen zaiola.

III.- Aurrekoaren ondorioz, biek hitzarmen hau sinatzea adostu dutela, zeina hurrengo baldintzetan oinarrituko den:

Klausulak

Lehena: Finkaren Ordezkariak baimena ematen dio Enpresa Instalatzaileari gas naturaleko instalazioa eraikitzeke (IRC) eta haren jabegoa instalatzaileari dagokiola onesten du, zeinak Finkaren Ordezkariak ezer ordaindu beharrik gabe eraikiko duen hura.

¹ Jabekideen erkidegoko kontratuentzat, Erkidegoaren Presidenteak Jabekideen Erkidegoak baimenduta jardungo du Erkidego horren akordio bitartez, _____ datakoa, non Banatzaileari baimena ematen zaion dagozkion kontratuak hari konektatzen diren erabiltzaileekin kudeatzeko, 942/2005 EDk edo haren ordezeko araudiak zehazten duenaren arabera.

Bigarrena: Enpresa Instalatzaileak, jabe gisa, IRC horren mantentze-zerbitzuak egin beharko ditu.

Hirugarrena: Finkaren Ordez kariaren obligazioa² izango da:

- a) Aipaturiko IC hori ez aldatzea, zatitzea edo suntsitzea.
- b) Aipaturiko instalazioa edozein titulurengatik alokairuan jarri edo transmititzea.
- c) Enpresa Instalatzaileari edo IRCren titulartasuna eman zaion hirugarrenari IRCan eragina izan dezakeen eraikin barruko gora-behera oren edo ekintza oren berri ematea.

Finkako Ordez kariak obligazio horiek beteko ez balitu, enpresa instalatzailearen aurrean edo hark IRCren titulartasuna eman dion hirugarrenaren aurrean, dagokiona, erantzun beharko dio hurrengo laugarren klausulan zehazten denaren arabera, eragin ahal izan dituen kalte eta galerengatik.

Laugarrena: Enpresa Instalatzaileak instalazio hartzailearen jabegoa Hornitzaileari lagatzeko gaituta dagoela, eta Finkako Ordez kariari jakinarazi beharko dio.

Kasu horretan, Hornitzaileak kanon bat jasotzea eskatu ahal izango du 942/2005 EDn zehazten denaren arabera, eta bera arduratuko da instalazioa mantentzeaz eta ongi zaintzeaz aldaketak gertatu arte.

Instalazio hartzaile komunaren jabetza Finkaren Ordez kariari esleituko zaio 20 urterako gehienez, eta Finkaren Ordez kariaren obligazioa izango da, une horretatik aurrera instalazioaren mantentze-lanak eta aldizkako ikuskaritza bere gain hartzea, hurrengo formularen oinarrituta:

$$\text{Prezioa: } C \times V \times (20 - A) \times 0,67; \text{ non}$$

C: IHK-ra konektatutako erabiltzaile-kopurua IHK erosi den unean. Ezin da izan eraikitako giltzen % 40 baino gutxiago.

V: Instalazioa erabiltzeko ordaindutako banakako urteko kuota, hirugarren atalean arautua, eurotan. Jabekideek erosketa egiteko uneari dagokiona.

A: Igarotako urteak, hamartar batekin, IHK martxan jarri zenetik. Gehienez, 20 izango da.

20 urte igarotakoan, jabegoaren itzulera automatikoki eta doan egingo da, aurretik egin ez bada.

GN Redes GLP-ri baimena ematen zaio kontratua gas naturaleko banatzaile bati lagatzeko GN Redes GLP-k hala erabakiko balu.

Eta, hala ager dadin, akordio hau bi aldiz sinatuko da

_____ (e)n, _____ ko _____ ren _____ (e)an

Enpresa instalatzailea

Finkaren Ordez karia

2 Auzokideen Erkidegoen kasuan, Finkaren Ordez kariak nahitaez sartuko ditu higiezin salerosketa eskriturretan IRC dagoela eta haren titulartasuna eskritura emateko unean